

Zebarri

Etxebarriko Udal Euskaltegiko Ikasleek eginga

2000ko Ekaina

Jaiak

Barandiaran
eskola

Euskararen
egoera

gurasoak
euskara
ikasten

errezetak

Pertsonaia
ezaguna

Ludoteka
euskaraz

Berri laburrak

Etxebarri
barritzen

San Antonio
futbol taldea

ETXEBARRIKO UDAL EUSKALTEGIA

CURSOS DE VERANO
UDAKO IKASTAROAK

Tlf. 94 440 77 69

Uztaila/Julio
MINTZAMEN IKASTAROA
Uztailaren 3tik 21era

Iraila/Septiembre
DBHko ikasleentzat/Alumnos de E.S.O.
EUSKARA HOBETZEKO IKASTAROA

Matricula ekainaren 30era arte / hasta el 30 de Junio



BERRIAK LABURREAN

Kukullagako 40 etxebizitza sozialak 5 eta 11 milioi arteko prezioa izango dute. 29 etxebizitza bikote gazteentzat izango dira, 9 etxe familientzat eta 2 elbarrientzat.

San Estebaneko antzinako kanposantua, 1972an itxi zena, parke bihurtuko dute. Horretarako Udalak 13 milioi gastatuko ditu.

Barandiaran eskolaurrea izandakoa laguntza-talde eta kultur-taldeen egoitza bihurtuko da.

Etxebarriko Udalak tren geltoki berria egin nahi du. Euskotren Etxebarriko Udalaren eskaintza aztertzen ari da.

Etxebarrik bere zaramaren % 14 birziklatzen du.

ZEBRABIDE BATZUK BI ALDIZ KONPONDU DIRA, BAINA ONDO DAUDE? AUZOKOAK POZIK DAUDE?

Hemendik aurrera txakur guztiek lepokoa eraman beharko dute eta arriskutsek bozala ere bai. Bestela 5000tik 2500000 pzta. arteko isuna ezarriko zaie.

Etxebarriko 100 pertsonak eskatu dute gizarte-laguntza. Denak jubilatuak eta pentsionistak dira. Gehienek eguneko zainketa edo arreta eskatu dute.

Etxebarriko Udalak eta Galdakaoko Udalak milioi bat emango dute Venezuelako eta Nikaraguako berreraiketan laguntzeko. Pedro Lobatok esan zuen ziur zegoela dirua helduko dena. Horrela, Bilbon dagoen Venezuelako kontsularen deiari erantzun diote.

2000ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

CURSOS DE VERANO 2000



ETXEBARRIKO UDAL EUSKALTEGIA

Bekosolo Parkea z/g. • 48450 ETXEBARRI
Tel./Faxa: 94 440 77 69 • etxebarri@euskalnet.net

Eskaintza

- MINTZAMENA lantzeko ikastaroa.
Uztailaren 3tik 21era.

*Beste ikastaro batzuei buruz galdetu
Euskaltegian.*

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 12tik 30era.

• • •

Oferta

- Curso de perfeccionamiento oral.
Del 3 al 21 de Julio.

*Pregunta en el Euskaltegi por otro tipo de
cursos.*

Plazo de matriculación

Del 12 al 30 de junio.

BARANDIARAN ESKOLA PUBLIKOA

Orain dela 8 urte eskolako zuzendaritza eta gurasoen elkartea gimnasio bat eskatzen ari dira umeentzat.

-6 eta 12 urte bitarteko umeak eskolatik frontoira joaten dira soinketa egitera, eta horretarako errepidea bi aldiz gurutzatu behar dute.

-300 metro inguru egin behar dituzte oinez, eta hori oso arriskutsua da.

-Eguraldi txarra egiten duenean busti egiten dira

-Materiala (pilota, baloia, soka, eta abar) eraman behar dute.

Frontoia ez da leku egokia soinketa egiteko:

-Taberna batetik sartu behar dute

-Toki iluna eta hotza da

Etxebarriko udalak eskola ondoan lursail bat eman du gimnasioa egiteko. Momentu honetan Hezkuntza Saila proiektua egiten ari da.

Ea egia den eta laster egiten duten!



ETXEBARRI BARRITZEN

Begibistan dago gure herria hankaz gora dagoela azken bolada honetan. Dirudienez Etxebarrin lan asko hasita daude udalerria hobetzeko, baina amalera ez dugu ikusten epe laburrean.

Arrazoi honengatik "Udalaren atea jo dugu", aldeztu aurretik herritarren iritzia eta kezak kontuan hartuta, besteak beste: Etxebarrin aparkatzeko arazoa, etxebizitza sozialetan zozketa - sistema, Lezama Legizamoneko pasealekua, hondakinentzako edukinontzi falta...

Hona hemen Jesus Colladok, Hiri-mantenu, Zerbitzu eta Lanak Batzordearen kide denak zinegotzi arduradunak emandako erantzunak:

ETXEBARRI BARRITZEN

GURE PASEALEKUAK AMAITU GABE (LEZAMA LEGIZAMON AUZOKOA, IBAI ERTZEAN ZEHAR)

Herritarrek pasealekua amaituta zegoela uste zutenean, Ur - Partzuergoaren lanak hasi ziren eta amaitutzat ematen zena berriro hankaz gora jarri zen. Urtebete joan da eta lanak antzera daude.

Udaletxearen arabera lan hauek amaitu arte ezingo dira gainontzeko konponketak egin, Pasealuaaren zati bat Ur - Partzuergoaren esku baitago.

Hala eta guztiz ere, ez duzue uste denbora nahikoa izan dutela?



Honek benetan merezi ote du pasealeku izena?

SAN ANTONIOKO ETORBIDERAKO ESPALOA, ESTUEGIA

Etorbiderako bidean, zubia pasatu ondoren, oso espaloi estua dago (zubia eta "Avenida inmobiliariaren" artean). Bide hau gero eta erabiliagoa da eta ez du zabalera nahikoa batez ere umeen gurditxoak gurutzatzen direnean. Udaletxean ez dute kexa honen berri izan eta arazo honi irtenbidea emateko konpromezua hartu du.



Kukuiaga handituz, espaloiak, berriz, estutuz

BEKOSOLO PARKEARI BIZIA EMAN

Bekosolo parkearen biziberritzea izango da Udalaren beste asmo bat. Hau lortzeko neurri hartuko omen dira, adibidez:

*Metroa Basauriraino heltzen denean **trenbidea kenduko da**, horrela errazagoa izango da parkea herrira hurbiltzea. Hau egiten ez bada zubi bat edo lur azpiko pasabide bat eraikiko da.

*Parkean argi gehiago jarriko dira eta **zuhaitzetan garbiketa** egingo da, zahartuta daudenak kendu eta berriak landatuz.

*Ezinduentzat **sarrerara egokiak** egingo dira bai euskaltegian baita beste zentruetan ere.



Baina ez duzue uste honela jarraitzen badugu, zuhaitzek "jan" egingo gaituztela?

ETXEBARRI BARRITZEN

TXAKURREI BURUZKO ARAUAK

Udaletxean esan digutenez txakurrek sortutako arazoak konpontzeko neurriak hartuta daude. Hala ere, ikus daitekeenez kasu gehienetan oraingoz ez dira betetzen eta Udalak laister plaka batzuk jarriko ditu leku publikoetan "debekatuta dago txakurrak aske eramatea" esanez.

Horretaz gain beste bando bat aterako da arauak berriro. Dena dela, herritar bakoitzak hartu behar duen konpromezua da (txakurrak lotuta eramatea, kakak biltzea...)



BIRZIKLATZEKO ARAZOA EDUKINONTZI FALTA

Auzo batzuetan nabaria da edukinontzi falta, baina arazo hau laster konponduko da enpresa batek herriko edukinontzi guztiak aldatuko ditu, dohainik gainera. Maiatzean hasi eta 3 urteren buruan denak jarrita egongo dira. Edukinontzi bereziak izango dira, hau da, eduki bikoitzekoak eta pedaldunak.



Eta non daude beste edukinontziak? horiak, berdeak...?

ETXEBARRI KOTXEZ BETETA

Gero eta zailagoa da Etxebarrin aparkatzea. Eraikitzaileei egin zaien proposamena zera da: Etxebizitza bakoitzak gutxienez partzela bana edo gehiago izatea.

Bestaldetik, 2003. Urtean metroa Etxebarriraino heltzen denean, geltokian aparkaleku handi bat dago aurreikusita.



Kalea kotxez gainezka

ETXEBIZITZA SOZIALAK

Azken aldi honetan etxebizitzak asko garestitu dira baina Udalak ez du horretan ardurarik, gai hai eraikitzaile pribatuen esku baitago.

Gazteriarri begira, San Antonion hainbat etxebizitza "merke" egiteko asmoa dugu, 165 hain zuzen. Beste arazo bat sortu da egin diren etxebizitza sozialen zozketa dela eta (kanpotik etorritako jendeari Etxebarrin egokitu zaio etxebizitza eta bertoko jendeari Basaurin, adibidez), baina esan behar da zozketa sistema hau Eusko Jaurlaritzak eta ETXEBIDE-k ezarritako baldintzak errespetatuz egin dela.



Hainbeste etxeren artean, baina etxebizitza sozialak gutxi

KULTURA

MENDIZALE ELKARTEA

Gure udalerrian mendizale elkarte bat existitzen da. Non dago? Badakizue? Ez daukagu informaziorik

IKASTAROAK

Helduentzako ikastaroen (eskulanak, dantzak, eta abar) ordutegi zabalagoa nahi dugu. Zergatik ez dago ikastarorik goizetan?

AZOKA

Iaz azoka egin zen eta ideia hori asko gustatzen zaigu eta urtero egitea nahi dugu.

INFORMAZIO GEHIAGO BEHAR DUGU!

EUSKARAREN TXOKOA

Hemen aurkezten dizkizuegun datuak Eusko Jaurlaritzak egindako II.mapa soziolinguistikotik ateratakoak dira. Hauei begiratuta Etxebarriko euskeraren egoera aztertzen saiatu gara eta honako hau ondorioztatu dugu.

AMA HIZKUNTZA KONTUTAN HARTUTA

	1981	1986	1991	1996
POPULAZIOA	5755	5981	6138	6132
H1 EUSKARA		%4,5	%3,9	%4,2
EUS/GAZ		%2,4	%1,8	%2,1
GAZTEL.		%88,8	%89,9	%88,4
BESTE		%4,3	%4,1	%5,3

HIZKUNTZA GAITASUNAREN BILAKAERA

	1981	1986	1991	1996
POPULAZIOA	5755	5981	6138	6132
EUSKERA	%5,1	%5,7	%8,5	%13,8
EUS/GAZTEL.	%8,8	%14	%18,8	%17,,7
GAZTELERA	%86,1	%80,3	%72,8	%68,5

Etxebarrin 1986 eta1996 urte bitartean populazioa handitu da, hala ere euskera hitz egiteko gai den jende kopurua gutxitu egin da. Gure ustez euskeraz egiten duten zenbait euskaldun zahar hilez joan dira eta kanpotik etorri den jendeak ez daki euskerarik.

1996. urtean ordea portzentaia berritua gora egiten du, eta honen arrazoia gure ustez umeak eta euskera ikasten ari den jendea da.

Datu hauek ikusita beraz, baikorrak izan gaitezke, gero eta jende gehiagok ikasten duelako euskera gure herrian eta espero dugu joera horrek oraindik gora egitea Etxebarri apurka apurka erabat euskaldundu arte.

Datu hauek ikusita Joseba Perezengana jo dugu, bera baita Etxebarriko Udaleko euskera zinegotzia. Elkarrizketatxo bat eduki dugu berarekin datu hauek aitzakiatzat hartuta eta hona hemen jasotakoak

GAUR EGUNGO EGOERA

Gure herrian ez da euskara askorik erabiltzen. %16ak baino ez daki eta. Etxebarrin umeak dira gehien dakitenak, baina eskolan baino ez dute erabiltzen. Honen arrazoi nagusia psikologikoa da, eurek euskara eta eskola lotzen dutelako. Hori dela eta eskolatik irten ondoren erderara jotzen dute.

Hau horrela izanda ere, egoera hobera doa eta espero dugu aurrerantzean hobeaz itatea oraindik, bai Etxebarri eta bai San Antonioko eskoletan B eta D ereduak baitira nagusi bi urtetatik aurrera.

UDALAREN ASMOA

Hainbat proiektu daude euskara bultzatzeko momentu honetan guztien ardatza eskolak eta euskaltegia direlarik. Hainbat talde eta ikastaro berezi antolatu nahi dira, hala nola monitoreentzakoak edo jada hasita dauden gurasoentzakoak San Antonio eta Etxebarrin bertan, gurasoek seme-alabekin euskeraz hitz egin ahal izan dezaten.


Bestalde Udalean euskera zerbitzu bat martxan jartzea ere izan liteke, eta baita bertako langileak euskalduntzeko plana abiatzea ere. Horrela, bertara goazenean euskaraz berbetako aukera izango dugu.

ETORKIZUNA

Uste dugu euskararen etorkizuna gure herrian ona dela. Gero eta jende gehiagok ezagutzen, erabiltzen eta ikasten baitu gure hizkuntza.

Hau horrela izanda ere bertoko jatorrizko hiztunak desagertu egingo dira eta eurekin batera baita Etxebarriko euskera bera ere.

Ez gaitzezen baina, triste jarri, denon artean ahalegin berezia eginez lortuko baitugu euskara bultzatzea eta indartzea. Nola? Euskara ikasiz eta erabiliz.



Etxebarriko eskola zaharretan ludoteka bat euskaraz egingo da. Etxebarriko eskola zaharra, Txiki Otaegi plazaren ondoan dagoena, konpontzeko proiektua dago.

Ludoteka irailean martxan jartzeko asmoa dago, ordurako eskola konponduta badago. San Antonioko kultur etxean, badago ludoteka bat, baina erdaraz baino ez.

Etxebarrin ume gehienek badakite euskaraz, nahiz eta euren ama hizkuntza gaztelania izan. Horrexegatik ezinbestekoa da euskaraz bizitzeko aukera ematea aisialdian, gure hizkuntza erabili dezaten.

Euskarabarriren ustez (Etxebarriko Euskara Taldea) ludoteka honek bi helburu nagusi ditu:

- Herriko umeek aisialdian ondo pasatzea, gozatzea eta lagun berriak egitea.
- Euskaraz gozatu eta ondo pasatzea, euskaraz hitz egiteko erraztasuna handitzea, euskara eskolan bakar bakarrik egiten den hizkuntza izan ez dadin.

Ludoteka 4 - 12 urte bitartekoentzat izango da eta mota guztietako ekintzak burutuko ditugu: jolasak, tailerrak, antzerkia...

Ludoteka irailetik ekainera egingo da, astean bi edo hiru egunetan.

Espero dugu euskaraz egingo den ludotekaren proiektua umeen gustokoa izatea.

Etxebarrin euskarak beste pausu bat aurrera!

Kaixo:

Gu etxekoandre talde bat gara, eta euskara ikasten gaude. Pozik gaude, zergaitik ez zarete animatzen?

Etorri San Antonioko Kultur Etxera, ondo pasatuko duzue eta asko ikasiko duzue.



MAKILAO APURTUA GANBEKIN

OSAGIAK

- 600 gr. Makilao apurtua
- 8 berakatz-ale
- 2 piper txorizero lehor
- 40 ganba edo langostino
- olio



NOLA EGIN

Piper txorizeroak moztu, pepitak kendu, eta gero ur epeletan sartu mamia kendu ahal izateko. Lapiko batean olio beroa ipini eta berakatzak frijitu. Ondoren atera berakatzak eta paper baten gainean utzi.

Ganbei gatz eman eta oliotan frijitu. Gero makilaoa moztu zati lodietan ganbekin frijitzeko. Piper txorizeroaren mamia nahastutakoan hiru minututan frijitu.

Azkenean makilao-zatiak ipini, mugitu pil-pilean bezala, egin apurtxo batean eta listo.

BIZKOTXO MOZKORTUA

OSAGIAK

- 3 arraultza, zuringo 1
- 4 goilarakada irin
- goilarakada 1 legamia
- 5 goilarakada azukre
- 2 goilarakada maizena
- gatz pixka bat eta gurin pixka bat
- dl. bat laranja eta limoi ura
- kopatxo bat Cointreau
- txorrostada bat ron
- esnegaina
- glaze azukrea
- gindak almibarrean



NOLA EGIN

Gorringoak eta zuringoak banatu eta zuringoak elur puntuan ipini. Azukrea bota, ondo nahastu eta gorringoa bota. Maizena bota eta ondo nahastu. Molde batean gurinaz igurtzi, eta bizkotxoaren masa botatakoan labean sartu 170 gradutan, hamar minutuz.

Bestalde jarabea egiteko laranja eta limoi ura eta azukrea erabili. Sutan ipini, egosi eta Cointreau eta ron pixka bat bota. Hozten utzi.

Bizkotxoa hotz dagoenean jarabe beroa bota gainean. Hozten denean mahaira atera.

CLUB DEPORTIVO SAN ANTONIO, SAN ANTONIOKO FUTBOL TALDEA

CLUB DEPORTIVO SAN ANTONIO



- * 1973an sortua
- * 1977/78an 1.go mailara
- * 1988/89an preferentera
- * 1977an Francisco Fernández futbol zelaiaren inaugurazioa
- * Aurten lehenengo maila erregionalean 12. postua.

Futbol talde hau sortzeko ideia San Antonioko lagun talde bati bururatu zitzaion. Gure herrian futbol zaletasun handia egon da eta horregatik daude bi talde: San Antonio eta Etxebarri (egia osoa ote da hau edo ez ote da posible talde bakar bat edukitzea?).

Taldea 1973an sortu zen eta ordutik aurrera Etxebarriren kontrako partiduak derbi handiak izan ziren.

Lehenengo lehendakaria Francisco Fernandez izan zen. Horregatik zeraman lehen futbol zelaia bere izena nahiz eta orain San Antonio deitu. Futbol zelai hau 1977an inauguratu zen eta ordurarte Etxebarriko futbol zelaian jokatzen zuten.

Denboraldi honetan taldeak bere urrezko garaia bizi izan zuen eta azkenean lehenengo mailara igotzea lortu zuen, urte bat geroago berriro jaitsi ziren arren.

Poliki poliki aurrera egin zuten eta 1988/89an berriro Lehenengo erregionalera igo ziren. Ordutik hona maila honetan jaraitzen dute.

Momentu honetan bost talde ditu San Antoniok eta bere aurrekontua hainbat milioitakoa da. Beraien diru iturri nagusiak bazkideen kuotak, kafetegia, Athletik, Udala eta futbol zelaiaren alokairua dira. Denboraldi honetan hirurehun bazkide inguru daude baina lehen gehiago zegoen.

Eta amaitzeko aipatu behar ditugu oraingo lehendakaria Jose Conde eta Benito Zabala, haiek direlako San Antonio taldearen izpiritua.



Taekwondok bete egiten nau

Cristina Altuna etxebarritarra, txikitatik hasi zen taekwondo praktikatzen. Orain, 21 urterekin hainbat sari garrantzitsu lortu ditu eta aurrera egiteko asmoa du. Berarekin egon ginen eta honako hau kontatu zigun.

ZEBARRI: Zergatik taekwondo eta ez beste kirolen bat?

Cristina: Egia esan, betidanik gustatu zaizkit Arte Martzialak. Txikitan karaten aritu nintzen, baina ez ninduen gehiegi motibatzen, eta azkenean taekwondorekin hasi nintzen.

Zer ematen dizu zuri taekwondok?

Bete egiten nau. Entrenatzen naizenean nire sena askatzeko balio dit.

Zenbat denbora daramazu kirol hau praktikatzen?

10 edo 11 urte nituenetik, gutxi gora behera.

Zein koloretako gerrikoa daramazu?

Beltza. Lehenengo Dan-a deritzona.

Astero zenbat ordu dedikatzen diozu?

Astean hiru aldiz entrenatzen naiz arratsaldez. Baina selekzioarekin txapelketak ditudanean, asteburuetan ere ekiten diot goizetan.

Euskal Herriko edo Espainiako selekzioetan parte hartu al duzu?

Bai. Euskaldiko selekzioan 6 urte daramatzat eta Espainiakoarekin behin nazioarteko txapelketa batean parte hartu nuen Danimarkan.

Zein lekutan egon zara konpetitzen?

La estatu espainiar osoan egon naiz: Burgosen, Salamancan, Madrilen, Bartzelonan, e.a.

Zein sari irabazi duzu?

Espainiako txapelketetan 2 urre eta 6 brontze. Eta Euskadiko txapelketetan 9 urre eta 2 zilar.

Jende ezagunaren kontra, Koral Bistuerren kontra edo, borrokatu al duzu inoiz?

Ez. Koral bezalako jende ezagunaren kontra ez, baina munduko txapeldun errioxar batekin bai.

Elikadura berezia hartzen duzu?

Ez. Egia esan, betiko moduan jaten dut, janari garbia baina inolako dietarik gabe. Txapelketen aurretik argaldu egin behar izaten dut pisua emateko eta orduan bai egin behar dudala erregimena.

Jarraitzaileren bat izango duzu, ezta?

Nire familia eta lagunak.

Zer esango zenioke jendeari kirol hau praktikatzera anima dadin?

Defentsa petsonal moduan erabil daitekeela eta gogoko izanez gero txapelketetan parte har daitekeela.

Zer egiten duzu taekwondoz aparte?

Batxilergo 1. Mailan ari naiz.

Noiz arte jarraituko duzu kirol hau praktikatzen?

Gorputzak ahal duen bitartean jarraitzeko asmoa dut.

Pentsatuta daukazu etorkizunean taekwondorekin erlazionatuta daoen zerbaitetan aritzea?


Denbora baldin badaukat taekwondo klaseak ematea gustatuko litzaidake eta arbitratzen jarraitzea, orain egiten dudan moduan.



Udako ikastaroak • Barnetegiak

UDAL EUSKALTEGIAK

Cursos de verano • Barnetegis



**Euskararako prest!
¡Veranea en euskera!**

ARXO

HABEREN diragurtzar.

UDAL
EUSKALTEGIAK



**Amorebieta-Etxano • Arrigorriaga
Basauri • Durango • Erandio • Ermua
Etxebarri • Galdakao • Gernika
Laudio • Leioa • Mungia • Muskiz
Portugalete • Santurtzi
Sopela • Txapargatan • Txorierni**



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa